



MUNDAKA 'KO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MUNDAKA
(BIZKAIA)

2018ko SAN PEDRO JALETAN
TXOSNAK INSTALATZEKO
OINARRIAK

1.- Txosnak zein gunetan ipin daitezkeen eta instalazioek bete beharreko baldintza zehatzak zeintzuk diren galdetu beharko zaio Jai Batzordeari. Udala izango da aurkeztutako eskabideak ebatziko dituen. Horretarako, jaiari egindako banakako edota taldekako ekarpenak, interes sozialeko ustiapenean eskuratutako baliabideen aplikazioa, eta jaietan garatu nahi diren programen bideragarritasuna eta aurreikusitako eragina hartuko ditu kontuan.

2.- Aldi baterako instalazioren bat ipiniko duten taldeek konpromisoa hartuko dute jaietako egitarauan aurreikusitako jardueretarako Jai Batzordeak ezarritako giza baliabideak eskaintzeko.

3.- Txosnak eta antzekoak instalatzeko baimena duten talde eta elkarte guztiek, jaiak amaitu ostean, DIRU-SARREREN ETA GASTUEN BALANTZEA aurkeztu beharko dute, gehienez BI HILABETEKO epean. Halaber, hitz emandako ekintzak behar bezala egin direla egiaztatuko da, jarduera eta burutzapena deskribatzen dituen memoriaren bitartez.

BESTELAKO BALDINTZAK

1.- Txosnak, ekainaren 21an jarri eta 2018eko uztailaren 2an kenduko dira.

BASES
INSTALACION TXOZNAS
SAN PEDRO JAIK 2018

1º.- A la Comisión de Fiestas se le deberá consultar sobre las diversas áreas ocupables y las condiciones concretas de las instalaciones, siendo el Ayuntamiento quien resuelva las solicitudes presentadas, para lo cual tendrá en cuenta las aportaciones individuales y/o colectivas a las fiestas, la aplicación de recursos obtenidos en la explotación de interés social, viabilidad e impacto previsible de programas a desarrollar durante las fiestas.

2º.- Los grupos que pongan algún tipo de instalación eventual se comprometerán a aportar a las diferentes actividades previstas en el programa de fiestas los medios humanos que la Comisión de Fiestas establezca.

3º.- Todos los grupos y Asociaciones autorizadas para la instalación de txoznas y similares, vienen obligadas, tras la finalización de las fiestas, a la presentación en el plazo máximo de DOS MESES del BALANCE DE INGRESOS Y GASTOS. Así mismo, se acreditará la realización efectiva de las acciones comprometidas mediante la Memoria descriptiva de la actividad y ejecución.

OTRAS CONDICIONES

1.- Las txoznas serán instaladas el 21 de junio y desinstaladas el 2 de julio de 2018.



MUNDAKA'KO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MUNDAKA
(BIZKAIA)

2.-Eskatzaileak instalazioaren ezaugarriak eta metro karratuak zehaztu beharko ditu, gehienez $6 \times 4m^2$ hartuko dituelarik gutxi gora behera.

3.- Argi eta ur konexio eta kontsumoen kostua txoznen kontura izango da.

4.- Guztiz debekatuta dago 18 urte baino gutxiagoko adingabeei alkoholdun edariak eta tabakoa saldu edo ematea, azaroaren 11ko 15/1998 Legeak ezarritakoa betez.

Era berean, 18 urte baino gutxiagoko adingabeek guztiz debekatuta dute txosna barruan egotea eta bertan lan egitea.

5.- Txosnetan sortutako zabor edo hondakinak lanaldi bakoitzaren amaieran bilduko dira, tontorrek eratuz, udal beharginek errazago bil ditzaten.

6.- Lanaldi bakoitzaren ondoren, sistematikoki garbitu eta desinfektatuko dira txosnaren barrualdea eta erabili diren tresna guztiak.

7.- Megafonia bakarra instalatu ahal izango da txosna gune bakoitzean, eta txosnen artean izendatutako txosnaren ardura izango da. Ados ipintzen ez badira, Udalak izendatuko du musikaren ardura izango duen txosna. Nolanahi ere, txosna horren erantzukizuna izango dira musika-instalazioak behar bezala ez erabiltzetik edo horien bolumenetik erator litezkeen arazoak.

2.-El solicitante deberá precisar los metros cuadrados a ocupar y las características de la instalación, que en todo caso deberá ser como máximo aproximada a $6 \times 4m^2$.

3.- El coste de las conexiones y los suministros de luz y agua correrá a cuenta de las propias txoznas.

4.- Queda totalmente prohibida la venta y suministro de bebidas alcohólicas y tabaco a menores de 18 años, en virtud de lo establecido por la Ley 15/98, de 11 de Noviembre.

Así mismo queda totalmente prohibida a menores de 18 años la permanencia y ejecución de trabajos en el interior de las txoznas.

5.- Las basuras o desperdicios generados por las txoznas se recogerán al final de cada jornada en montones, facilitando la recogida de los mismos a los operarios municipales.

6.- Después de cada jornada, se procederá sistemáticamente a la limpieza y desinfección del interior de la txozna y de todos los útiles empleados.

7.- Tan sólo podrá instalarse una única megafonía para cada zona de txoznas y estará bajo la responsabilidad de la txozna que sea designada entre las txoznas, en caso de que las mismas no se pongan de acuerdo, será el Ayuntamiento quien designe la txozna responsable de la música. Esta, en todo caso, será la responsable de los problemas que puedan derivarse del mal uso de



MUNDAKA'KO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MUNDAKA
(BIZKAIA)

las instalaciones musicales o de su volumen.

8.- Bozgorailuek eta musika-instalazioek egindako soinu-maila inoiz eta inola ere ezin izango da jarraian adierazitako soinu-mailak baino gehiagokoa izan, hiru metroko distantzian neurtuta:

a) Hurbilen dagoen etxebizitzarako tartea 10 eta 15 metro bitartekoa bada: 70 dB(A).

b) Tarte hori 10 metro baino txikiagoa bada: 60 dB(A).

c) Hurbilen dauden etxebizitzetarako tartea 15 metro baino gehiagokoa bada, ez da 80 dB(A) baino gehiagokoa izango.

9.- Jaietarako Txosnen itxiera ordutegia alkatetzak jarriko du. Ordutegi honen berri jakinaraziko zaio txosna bakoitzari.

10.- Txosnak ipintzeko baimena duten talde edo elkarteek, jarduera hasi aurretik, frankiziarik gabeko erantzukizun zibileko poliza sinatu beharko dute, eta horren zenbatekoa ezin izango da Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legeak ezarritakoa baino txikiagoa izan.

11.- 2018eko apirilaren 30a baino lehen udaletxean aurkeztu beharreko agiriak:

- Frankiziarik gabeko erantzukizun zibileko poliza.

8.- El nivel sonoro producido por los altavoces e instalaciones musicales, no superará, en ningún caso ni momento medidos a tres metros de distancia, los niveles sonoros que a continuación se indican:

a) Si la distancia a la vivienda más próxima está comprendida entre 10 y 15 m.: 70 dB(A).

b) Si la distancia es inferior a 10 m.: 60 dB(A).

c) Si la distancia a las viviendas más próximas es mayor que 15 m. no excederá de 80 dB(A).

9.- El horario de cierre de las txoznas será establecido por la Alcaldía para el periodo de fiestas, el cual será comunicado debidamente a cada txozna.

10.- Los grupos o entidades autorizadas a la colocación de txoznas, deberán suscribir, previo al inicio de la actividad, una póliza de responsabilidad civil sin franquicia de cuantía no inferior al establecido por la Ley 4/95, de 10 de Noviembre, de Espectáculos y Actividades Recreativas.

11.- Documentación a presentar en el Ayuntamiento para antes del día 30 de abril de 2018:

- Póliza de Responsabilidad Civil sin franquicia.



MUNDAKA'KO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MUNDAKA
(BIZKAIA)

- Txosna instalatzeko baimena duen elkarteak agiri honetan adierazitako baldintza guztiak onartzen dituela dioen agiria.

- Documento de asunción por parte de la Asociación autorizada a instalar, de todas las condiciones expresadas en el presente documento.

12.- Aipatutako agiri horiekin batera, 500 euroko fidantza gordailatu beharko da Udal Bulegoetan, egon litezkeen kalteak konponduko direla bermatzeko.

12.-Junto con la documentación antes referida, se deberá depositar en las Oficinas Municipales, una fianza de 500 euros, al objeto de garantizarse la reparación de posibles desperfectos.

13.- Baimendutako elkarteek Mundakako Jaietan lagunduko dute, euren gain hartuz Jai Batzordeak erabakitako jardueren kostuak eta kudeaketa.

13.- Las Asociaciones autorizadas contribuirán a las Fiestas de Mundaka, asumiendo la gestión y los costos de la actuación que se decida por la Comisión de Fiestas.

14.- Tokia mugatua da, aurkeztutako eskaerak dagoen tokia gaindituz gero, zozketa egingo da.

14.- El espacio es limitado, si hay más número de peticiones que supere el mismo, se procederá a sorteo

Mundakan, 2018ko urtarrilaren
31an.

En Mundaka, a 31 de Enero de
2018.

